

## **Ipuin kontaketa izango da gaur Orioko liburutegian**

Orio. Udal liburutegiak ipuin kontaketa saioa antolatu du gaurko. Hilean behin antolatzen ditu emanaldiak gaztetxoek gozatzeko aukera izan dezaten.

Miriam Mendoza ipuin kontalariak eskainiko du gaurko saioa 18.00etan hasita eta sarrera doakoa izango dela nabarmendu zuten emanaldiko arduradunek.

Bost urtetik gorako haurrentzako eskainiko dute Mendozaren saioa eta antolatzaileek gurasoei haur gaztetxoagoak ez bidaltzeko eskaera egin dute, arazorik sor ez dadin.

Orioko hurren udal liburutegiak neguko eguraldia dela eta hilero ipuin kontaketak antolatzen ditu haurrak babestuta egon daitezen eta ongi pasatzeko parada izan dezaten. Liburutegia bete egiten da istorioen saioak antolatzen direnean eta oraingo honetan ere halako erantzuna jasotzea espero dute arduradunek. >a.l.